

Txillardegi

Idazlea

Qui prodest?

■Oraindik, itxura denez, sinetsi nahi izan ez arren, garaia dugu egoera berria ahalik garbikiarik ikusten saiatzeko.

Azkeneko hogeit hamar urte honetan Hegoaldean, Madrilen onepenarekin, eraiki den *tramankulu autonomikoak* helburu hau dauka: trauma mingarriegirik gabe, poliki-poliki, ikurriña balkoi ofizialetan eskegita, Hego Euskal Herria Espainian integratzea. PNVa, Madrilen *beharrezko laguntzaile* bihurtu da (erdaraz, *el colaborador necesario*). Madrilak berak egin ez dezakeena, jeldideek egiten diote.

Euskal nazio-erakuntzari buruz, PNVagandik inoiz laguntzarik etorriko zaigula pentsatzea, adimenaren kontra-koa da jadanik, zentzugabea, irrazionala. Jai dugu guk PNVarekin. Espainiak, berriz, ez.

ELA sindikatoa PNVtik eta estatutismo espainolistatik urruntzen hastea, beraz, urrats ezin garrantzitsuagoa izan da. Batera UGT eta CCOO anti-abertzaleetatik urruntzearekin gertatu baita.

Honegatik, bestegatik ez balitz ere, errespetu osoa merezi lukete Elorrietak eta beronen burukide ausartek. Baita laguntza ere.

Era bertsuan, ezker politiko klasikoaren porrota izkatutu ezina (are, disimulatu ezina ere) delarik, euskal langileriak, krisi ekonomiko latzak inarrosirik, euskal berri bat behar zuten (eta behar du) gero beltzari aurre egiteko.

Eta barne-bulkadak eta gizarte-projektuz geure burua ezkerrean kokatzen dugunok, sindikalismo abertzalearen hazi-kunde jarria dugu geure esperantza.

Sasi-ekzerrerria zaharkitu eta hutsailetatik irten, eta ezker abertzalearen ildoan LAB irmoki kokatu duten gizonek (Rafa Diez Usabiaga miresgarriak, alegia, eta beronen burukide-tza osoak) errespetu eta laguntza osoa merezi dituzte abertzaleen artean.

Gernikako ekintza bateratu eta esperantzarriak, horretara, gerorako xirikitu edo bidexka bat baino, *bidea* erakutsi zigula esango nuke. Mundu osoko ezker politikokoaren krisi batean, abertzaletasunaren oinarri soziologiko berria hasia baitzen hozoiten LAB-ELA elkarketa ederrean.

Aurtengo Martxoaren 11ko hilketak deitoragarria, horrela (Martuteneko Gomez Seguraren heriotzaz ari gara oraingotan), LAB-ELA hurbilketaaren otopatzaile nabarmen, ahanzen eta gainditzen hasiak ginen.

Elorrietaren *«El Estatuto ha muerto»* esaldi bortitzak, abertzale guztion kontzientziak astindu zituen. Koloka zegoen *Pacto de Ajuria-Enea*-ko baradera hilgarria.

Azkeneko asteotan ezagutu dugun goranzko eupada miresgarriak, zokoratutik zeuzkan, beldurtutik, ezindutik, zer egin ez zekitelako, errejonalista kolaboratzaileak eta espainolistak oro.

Hots, mementu horretantxe hain zuzen, eta Bilboko manifestazioa historiko gertatzeko bezperan. Irungo berri hitza zabaldu da bazterretan. Goranzko abiadura sendoa brauki moztu da, erabat eten; errejonalistak eta espainolistak berriro harrotu, Ermuko mamua berriro gorpuztu, geure gre-

ba-deiak tarrapatata deuseztu, eta, hitz batez, militantzia abertzaleak ilusioz prestatutako lan gaitz osoa, bertan behe-  
ra.

Nork irabazi du? Berek ala guk?  
Erromatarren *qui prodest* famatua erabiltzeko garaia dugu. Nori gertatu zaio mesedegarri? Nori kaltegarri? Guri ala berei?

Etsaiaik ez du ELA-LAB elkarketak inolaz ere irautea nahi. Hau garbi agertu da haseratik. Guk, bai, ordea.  
Nor dago pozik gaur? Gu abertzaleok, ala berak? Irakurle-  
ak erantzun beza.

Norbaitek gure artean *izkutuko esku beltza* gogorazi izan du aldioro. Eta ez zaio kasorik egin. Baina galdera hori, edo susmoa, edo kezka, edo nahi duzuen hitza erabili, hazkoro ari da zabaltzen gure artean. Nola uler ote daitezke gertakari hauek?

*Qui prodest*, berriro. Noren probetxutan gertatu dira? Nori komeni izan zaio herri-dinamika errotik erauzi duen hilketak hau? HBren ilegalizazioa, eta joko politiko abertzale osoaren debeku *faktikoa*, begi aurrean daukagun une larri honetan, nork asmatu eta bideratu du erantzun zentzugabe hori?

Abertzaletasunaren oinarri soziologikoa sendotzen ari zela erreparatzean, poz handiak izan ditugu azkeneko aste hauetan. Ez geunden oraindik helburuan. Ez, Bai, ordea, helbururako bidean.

Gure arteko askok ez du aisa sinetsiko *ekintza* hau proposatu eta mamitu dutenen helburuak eta gureak, helburu berak direnik. Ez baitu hori ematen.

Galdera asko, zalantza asko. Gehiagi. Baina herenegungo gertakari ezin larriago honek, azken bururaino pentsatzeko ausardia eman behar digu.

Ez dugu geure ahotsa inolaz ere Arzalluz, Atutxa eta Mayor Orejaren koro ustel eta kakofonikoen nahasi nahi. Noski.

Baina, berriro ere, eta azkeneko aldiz: *qui prodest?* Noren laboretan gertatu da? Operazio honen bultzatzailea, gaurko egoeraz abantaila ateratzen dutenen artean baitagoke, ongi moztorturik.

Ajuria Eneko Paktoan, mahaikideen gartzelaraketan eta presoan sufrimenduez egiten ari den burla gupidagabea, oinaze gaitzak metatu dira azkeneko hilabete hauetan. Euskal gizarte abertzalean dagoen etsipenare, *bilatzea* bidezkoa da...

Baina hor hein batez bakarrik.  
Interes gaitzak daude espainiar Estatuan eta tramankulu autonomikoan euskal mugimendu abertzalea hondatzeko. Kinka larri hauek jasan dituzten beste herrietan ere, gerra zikina (harmatua eta psikologikoa), infiltrazioa (pertsonea eta ideiena), eta moztortoketa sasi-radikala, sistematikoki erabiliak izan direla ikastea, hemen ere ausarki pentsatzeko beharra dugu.  
Erne, oto! ■

Jose Mari Pastor



Chanel 1512

Espainiak Gibraltarren gaineko subiranotasun konpartitua eskaini dio Londres eta autonomi estatutu zabala Arrokari 1713tik datorren afera konpontzeko. «Gibraltar, Europa barruko azken kolonia» esaten dute Madril. «Azkena»? Seguru?

Nafarroa ingelesen Gibraltart hartu baino 200 urte lehenago inbaditu zuen Fernando Katolikoa. Nazio Batuen Erakunderik ez zelarik, Espainiak NBERik ez zen sasotan ere galdu zuen Gibraltart baina botere politikoa du gaur lur puska hori eskatzeko. Nafarroak, ordea, ez. Nafarroa Behereak gaur arte nola edo hala independente segitu balu, enbaxadore nafarrak espainolen kolonialismoa sala zezakeen NBEn. Baina hau fikzio hutsa dugu. Errealitatea zera da: metropoliaren *virrey* demokratikoa liruñean ez da inoiz Nafarroako inbasioaz mintzatzen, Nafarroa Oinez-en bezperatan salbu.

Zer gertatuko zen 1512an NBE izan balitz? Gerra deklaratu zion Fernando Katolikoari Nafarroatik bota arte? Boikot ekonomikoa artile esportazioa murriztaraziz? Zenbat ume hilko ziren gosez Gaztela-Aragoin? Lagun talde bat igortzea proposatuko zen erregearen jauregia miatzeko?

Madrilak nafarren borondatea errespetatu nahi du -oraingoa, XVI.mendekoa ez-. Gaurko gibraltartarrei, aldiz, ez die ezer galdetu nahi. Erreferendum bakarra 1713ko biztanleekin egingo luke. Demokrata nekrofilo asko Erresumako hiriburuan.

Zer egingo luke Espainiak egun erreferendum bat izan eta, autonomi promesak gorabehera, Gibraltartarrei, aldiz, ez die ezer galdetu nahi. Erreferendum bakarra 1713ko biztanleekin egingo luke. Demokrata nekrofilo asko Erresumako hiriburuan.  
Zer egingo luke Espainiak egun erreferendum bat izan eta, autonomi promesak gorabehera, Gibraltartarrei, aldiz, ez die ezer galdetu nahi. Erreferendum bakarra 1713ko biztanleekin egingo luke. Demokrata nekrofilo asko Erresumako hiriburuan.

Kornerra

Mikel Elorza

Demana

■ Apustu giroa izan da asteburuan. Apustu jendetsua Donostian, berbarik egiteko oihuka; apustu handia eta zaila Bilbokoa, Irunen galdu eta jende asko «ez bada, zergatik?» utzi duena; dema gogorra Gasteizen. Pilotaren Erresuman Retegei errege zaharrak Titin Errioxako printze gaztearen bultzadei eutsi beharrez, eta bertso dema Donostian gaur.

Berrogei urtetik beherakoena finala. Umibertsitatekoa dirudi. Bertsolaritza, tenisa bezala, gazteen kontu baita lehia ofiziala delarik. Hogeitaka urte izateak ematen duen freskotasun eta indarrak biribiltzen du, nonbait, ondoen bertsoa. Bost edo sei punturakin puntu asko lortzeko, esan nahi dut. Finaletan gazte hasita, dena den, finalei ere lehenago uzten zaie. Asto zahar batek karga asko eramatea zail dela, Uztapidek esan bezala. Txapelak ere karga izan dezake, baina guztiek jantziko lukete. Bakarra da, baina, zortzi buru estaltzeko. Besteek txaloeekin konformatu beharko. Horixe da dema.

L A P I h I T Z A

ZORTZIKO HANDIA

